Memoria

2020

www.edefundazioa.org

EDE Fundazioa
Supergintza Elkartea
Suspertu SL
Fundación Luz Casanova

Euskarazko edizioa

EDE FUNDAZIOA

Eraldaketa posible egiten duten pertsonak eta komunitateak

EDE FUNDAZIOA

Aurkibidea

Eraldaketa posible egiten duten pertsonak eta komunitateak	Erresilientzia	5
	Gizartean dugun eragina	6
	Gizarte-proiekzioa	7
	Pertsonen sarea	8
	Gure aliantzen komunitatea	9
	Datu ekonomikoak	10
	Agenda 2030ekin konektatzen	11
EDE Ezagutza	Ikerketa	13
	Aholkularitza	14
	Prestakuntza	16
	Garapen komunitarioa	17
	Bolunta	18
EDE Suspergintza	Aniztasuna, bizikidetasuna eta giza eskubideak	20
	Haurrak, nerabeak eta gazteak	21
	Adinekoak	22
	Emakumeen aurkako indarkeria matxista	23
	Familiak	24
	Nontzeberri	24
EDE Enplegu inklusiboa	Suspertu S.L. gizarteratzeko enpresa	26
	Enplegu inklusiboa pandemiaren aurrean	27
	Enplegurako prestakuntza	27
	Gaztebarri	28
	Emaktiva	28
EDE Nazioartekoa	Nazioartea	30
Kontuak argi	Datu ekonomikoak EDE Fundazioa	33
	Datu ekonomikoak Suspergintza Elkartea	34
	Datu ekonomikoak Suspertu S.L.	35
Eskerrik asko	Eskerrik asko	36
Luz Casanova Fundazioa	Luz Casanova Fundazioa	38
	Datu ekonomikoak Luz Casanova Fundazioa	39
	Datu ekonomikoak Jesusen Bihotzaren Apostolikoak Gizarte Ekintza	40
Gure begirada	Pandemia: testuingurua, ez esentzia	41

EDE Fundazioa

Aldaketa iraunkorrak, inklusiboak eta jasangarriak sortzeko lan egiten dugun erakunde sozialen multzoa gara. Ezagutzaren bidez eta ekonomia sozial eta enplegu inklusiboko proiektuak garatuz eta zuzenean esku hartuz egiten dugu hori. Gure sareko parte dira: EDE Fundazioa, Suspergintza Elkartea, Suspertu SM eta Fundación Luz Casanova Fundazioa.

www.edefundazioa.org

EDE FUNDAZIOA



Erresilientzia

Talisman hitza urte honetarako, zeinetan ezin ditugun ahantzi oraindik irauten duen pandemia madarikatu honen ondorioz joan zaizkigun edo haibeste sufritu duten pertsona guztiak, hurbilekoak eta ez hain hurbilekoak. Pandemiak, gainera, oraindik dirau, eta gure bizitzak aldatu ditu, bai eta bizitza horiei aurre egiteko modua ere.

Berehala esango dut ez dela urte ona izan EDErentzat, gure jardueraren emaitza ekonomikoa bakarrik kontuan hartzen badugu. Diru kopuru nabarmena galdu dugu, batez ere gure bi lerro nagusien beherakadagatik, aisialdiko jarduerak eta talde-turismoa, pandemiaren ondorioz eta sektorearen krisi globalarekin bat etorriz.

Baina emaitza ekonomikoa, oso garrantzitsua izanik, ez da gure Fundazioaren helburu bakarra, ezta garrantzitsuena ere. Gure xedea gizarte-eraldaketa da, gizarte-errealitateak ezagutuz, errealitate horietan esku hartuz eta enplegu inklusiboa sortuz.

Eta, hemen, erresilientzia terminoa hartzen dut berriro, gure erakundea gai izan baita pandemian zehar planteatutako erronka guztiei aurre egiteko, modu kolektiboan, berritzailean, konprometituan, artatu ditugun pertsonekiko hurbiltasunez, jasotako eskaera bakoitzari erantzunez, gure ezagutza eta baliabide guztiak arazo bakoitza gainditzeko aplikatuz, eta, batez ere, etorkizunari begiratu gabe, hurrengo egunean.

Talde-jarrera horretatik bakarrik uler daiteke zenbat ekimen eta proiektu berri aurki daitezkeen 2020ko Memoria honen irakurketa arretatsuan.

Galera ekonomikoei aurre egin ahal izan genien, gure funts propioak indartuz, langileen zati handi batek eta bi entitate lagunek, Harribidek eta Jesusen Bihotzaren apostolikoek, emandako mailegu parte-hartzaileen bidez.

Teknologia prestakuntzaren zerbitzura jarri genuen, eta, horretarako, prestakuntzako eta zaintzako eduki berriak sortu genituen, baita jakintza kogeneratzeko bide gisa ere, IZPI ekimenaren bidez. Kolektibo zaurgarrien egoitza-behar berriei erantzun genien, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan eta Madrilen, bi lurralde horiekin dugun konpromisoa sendotuz. Pandemian sortutako boluntario-mugimenduei lagundu diegu, eta, aldi berean, emakume ahulak laneratzeko Emaktiva proiektua Gipuzkoara zabaldu dugu. Gure Suspertu-Ateri gizarteratze-enpresak Bilboko Udalaren emakidaren bidez kudeatzen duen Bilbao Hostel-en zati bat coliving proiektu bihurtu dugu.

Jesusen Bihotzaren Apostolikoei gure egoitza dagoen eraikina erosi genien, anbizio handiko proiektu bat garatzeko. Proiektu horretan, kolektibo ahulentzako bizitegi-ekipamendu bat integratuko da, jatetxe inklusibo batekin, beste eragile eta pertsona batzuekin partekatutako lan komunitarioko espazioekin eta gure lantokiarekin.

Proiektu jasangarri, ekonomiko eta ingurumenekoa da, gizartean eragin handia dueña. Espazio fisiko batean, EDE erakundeak azken urteetan metatu duen ezagutza- eta interbentzio-kapital guztia bilduko du, beste kanpo-eragile batzuekin batera. Eragile horiek beren definizioari lotu zaizkio oraindik ere prozesuan dagoen kogenerazio-lan batean.

Lan erresiliente eta berritzaile hori guztia ez zatekeen posible izango EDE osatzen duten pertsona guztien parte-hartze konprometitu eta gogotsurik gabe, plantilla, Patronatua eta Ostargi, eta horiei eskerrak ematea besterik ez zait geratzen hain urte korapilatsuan egindako ahaleginagatik.

Jon Mancisidor
-
EDE Fundazioko
Patronatu Batzordearen
Presidentea

Gizartean dugun eragina

355.032
pertsona gure ekintzen onuradun

13.953
prestakuntza-ordu profesionalei eta boluntarioei

22.332
ordu aholkularitzan eta ikerketan

745
entitateri eskaini diegu arreta

13.720
adingabe eta gazte ditugu gizarte eta hezkuntza arloko programetan

3.537
izan dira egoera zail edo zaurgarritasun-egoeretan egon, eta artatu ditugun pertsonak

12
gizarte, gazte eta kirol arloko instalazio

85.975
egonaldi aterpe eta egoitzen sarean



Gizarte-proiekzioa

Komunikazio korporatiboaren euskarriak marka berriarekin

EDE Fundazioaren irudi eta marka berria estreinatu ditugu: EDE ezagutza, EDE Suspergintza eta EDE enplegu inklusiboa. Horiek horrela, markaren arkitektura paper-gauzetan (karpetak, txartelak, gutun-azalak, orri zigiludunak, inprimakiak...), sinadura digitaletara eta abarretara aplikatu dugu.
Gainera, Estudio Dobleren eskutik, Word eta Power Pointeko txantiloi homogeneo eta moldagarri batzuk diseinatu ditugu –funtsezko tresnak dira taldeen lanerako–, eta hala, gure barneko zein kanpoko presentzia eta irudia ordenatu ahal izan ditugu.

EDETik, ezagutza partekatzeko formatu berria

Pandemiak komunikatzeko modu gehiago birplanteatzera ere ekarri gaitu. Lan handia egiten ari ginen 2.0 arloan: edukiak astero eguneratzen genituen webgune berrian, sare sozialetan, online kanpainen plangintzak egiten genituen... Hala ere, ikusi genuen interesgarria zela egiten duguna eta beste batzuek ere egiten dutena partekatzen jarraitzea, nahiz eta ezin ginen aurrez aurre elkartu. Horrela sortu zen EDEtik, bideokonferentziak egiteko plataformen bidez elkarrizketarako eta ikasteko espazioak biltzen dituena. Lehenengo webinar elkarrizketa ekainean egin genuen, eta "Berdintasuna gizarte-larrialdiaren erdian" izan zen gaia. Gure Aholkularitzako kideek eginiko akta grafiko zoragarriak ere erabili genituen. 2020an, berdintasunaren, esku-hartzearen, zaintzen eta enplegu inklusiboaren arloko 5 EDEtik saio egin genituen.

238
pertsonak online jarraitu zituzten EDEtik saioak

Gure entitate guztientzat da funtsezkoa dituzten ezagutzak eta egiten dituzten hausnarketak gizarte osoarekin partekatzea. Horregatik erabiltzen ditugu eskura ditugun komunikaziorako tresna eta bide guztiak: komunikabideetako presentzia, Interneteko parte-hartzea, publizitatea, sentsibilizazio-kanpainak eta abar.

Gure konplizitateari eusten diogu, barneko sentsibilizazio- eta prestakuntza-kanpainetan berdintasuneko (Orekatuz), euskarako (Euskara Batzordea) eta teknologiako (Garapen Digitala) batzordeei babesa emanez eta lagunduz. Barneko eta kanpoko ekitaldien kudeaketan laguntzen ere jarraitzen dugu.

168.707 bisitak webgunean %81 bisitari berriak

2.219 jarraitzaile facebook-en

1.616 jarraitzaile twitter-en

2.739 jarraitzaile linkedIn-en

874 jarraitzaile instagram-en

65 inpaktuak hedabideetan

Pertsonen sarea

322
langile

246 emakume
76 gizon

86
langile
EDE Fundazioa

59 emakume
27 gizon

176
langile
Suspergintza

152 emakume
24 gizon

60
langile
Suspertu SL

35 emakume
25 gizon

63
boluntario

43 emakume
20 gizon

47
pertsonari lagundu zaie lan-mundura sartzen

27 emakume
20 gizon

Aurrerapena erakundearen digitalizazioan

EDEgune digitala jarri dugu abian. Espazio berri honek aukera ematen du erakundearen apustuen eta arreta-guneen norainokoa ezagutzeko, ezagutza sistematizatu eta partekatzeko, lankidetzan zeharkakotasuna txertatuta eta eraginkortasunez aritzeko; baita parte-hartzearen bidez berrikuntza sustatzeko ere.
EDEgune digitala langileek, kolaboratzaileek eta boluntarioek erakundearekin harreman digitala izateko gunea da, eta une honetan garatze-prozesuan den inpaktua neurtzeko eta kudeatzeko sistemaren bizkarrezurra ere bai.

Kontratuak eta ABEEEak murriztu dira pandemia dela-eta

2020an, osasun-krisiak markatu du lan arloa eta lan-arriskuak prebenitzearen arloa:

- % 15 jaitsi da kontratatutako pertsonen kopurua, arlo guztietan murriztu baitira aldi baterako programak.
- Pandemiak Suspertu kolpatu du batez ere: lan-munduratzeari lotutako aldi baterako kontratu asko amaitu dira eta ez dira berritu; langileen % 50 aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteen eraginpean egon dira urteko uneren batean. ABEEE enpleguari eusteko tresna bat izan da.
- Instalazio guztiek jarri behar izan dituzte abian COVID-19aren aurkako kontingentzia-planak, zerbitzuak legeak eskatutako osasun-bermeekin eskaini ahal izateko.

Prestakuntza trinkoa langile guztientzat

Entitateak, 2020an, langileen prestakuntzari lotuta erreakzionatzeko eta egokitzeko izandako gaitasun handia nabarmendu nahi dugu. Prestakuntza eta gaikuntza maila altuei eutsi zaie, 2019ko mailen antzekoei, hain zuzen.

Egokitze-lorpen horren atzean hiru arrazoi daude:

- Langile guztiei telelanerako tresnei buruzko prestakuntza trinkoa:
  · 700 ordu
  · 194 pertsona trebatu dira
- Prestakuntza espezifikoa COVID-19aren aurrean egin beharreko lanari buruz.
- Urruneko prestakuntza-eredu berrietara egokitu gara (webinar, ikasgela birtualak, online prestakuntzarako plataformak...), eta aukera eman du horrek esku-hartze eremu batzuetan eta besteetan etengabe gaitzen jarraitzeko eta egunean izateko.

4.900
prestakuntza ordu

265
pertsona

Gure aliantzen komunitatea

Egina dugu apustua Hirugarren Sektorearen eta partaide gaituzten sareetan parte-hartu eta kolaboratzearen alde, eta horretan jarraitzen dugu.

Gizatea elkarteak oso balorazio ona egin du Europako Gizarte Funtsarekin batera finantzatutako 2014-2020 aldirako Gizarteratzeko eta Ekonomia Sozialeko Programa Operatiboaren inguruan (POISE). Partaide izan gaituen programa horren azken helburua laneratze-enpresetako pertsonak merkatu arruntean sartzea da. Suspertuko bi pertsona lehen esperientzia pilotuan parte hartzen ari dira.

Ekain sareak (REAS, EAPN, Hirekin eta Gizatea, Euskadiko inklusio-sareak) jarraitzen du Eusko Jaurlaritzarekin enplegu inklusiboari buruzko elkarrizketan.

Aipagarria da, 2020an, Euskadiko Finantza Etikoak Elkarteko Zuzendaritza Batzordean batzordekide bat izatea lortu dugula. Elkarte hori gure lurraldean dauden Fiare Banku Etikoko erakunde-bazkideek osatzen dute.

EAPN, Gizatea, Gizardatz-Hirekin, Ekain elkarteetako Zuzendaritza Batzordeetan parte hartzen jarraitzen dugu; baita Estatuko Didania federaziokoan ere.

Aisialdia eta garapen komunitarioa

- Aizibizia Elkartea
- Euskalerriko Eskautak Bizkaia
- Aisi Hezi Fundazioa
- Harribide Fundazioa
- Gozaldi Elkartea
- Kiribil Sarea
- Umeak Kalean Elkartea

Lankidetza

- Bategin Bizkaia eta Bategin Gipuzkoa Elkartea
- Etorkin Gazteen Partzuergoa.
- Aisialdi Hezitzailearen Partzuergoa
- Elizako Gizarte Erakundeen Taldea

Parte-hartzea kontseiluetan

- Eusko Jaurlaritzako haur eta nerabeen batzorde iraunkor sektoriala
- Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
- Pastoralaren Elizbarrutiko Kontseilua
- Euskal Boluntariotza Kontseilua

Hirugarren Sektore Sozialeko sareak

- Astialdi Sarea. Gizarte esku-hartzea eta aisialdiko heziketa
- Didania. Aisialdiko Elkarte Kristauen Federazioa.
- EAPN. EAPN, Pobreziaren aurkako Borrokaren Europako Sarea, Espainian eta Euskadin
- Emakumeok Bidean
- Faciam: Marjinatuak Integratzeko eta Laguntzeko Erakunde eta Zentroen Federazioa
- Faedei. Lanerako Enpresen Enpresa Elkarteen Federazioa
- Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen Foroa
- Gizardatz. Bizkaiko gizarte ekimeneko eta esku hartzeko erakundeen elkartea
- Gizatea. Gizarteratzeko eta laneratzeko Euskadiko Enpresen Elkartea.
- Madrilgo Hirugarren Sektorearen Plataforma
- Sareen Sarea

Estatuko aliantzak

- Jesusen Bihotzaren Apostolikoak
- Pere Tarrés Fundazioa (Bartzelona)

Europako aliantzak

- Europako Gizarte Funtsaren Jarraipen Batzordea
- European Network of Innovation for Inclusion. Gizarteratzeko Berrikuntzaren Europako Sarea
- Feantsa: European Federation of National Organisations Working with Homeless
- Europe Direct sarea. Europako Informazio Zentroak. Europako Batzordea
- EIES sarea. Europako Informazioaren Euskal Sarea. Lehendakaritza. Eusko Jaurlaritza

Datu ekonomikoak



Agenda 2030ekin konektatzen

GJHei egiten diegun ekarpena

1. Enplegurako prestakuntza eta orientazioa, elkarlana enpresekin eta lan-munduratzeko enpresarekin: 1. GJH, 2. GJH, 3. GJH, 8. GJH, 10. GJH eta 12. GJH
2. Emaktiva, indarkeria matxista, ikerketa eta genero-aholkularitza: 5. GJH, 8. GJH eta 10. GJH
3. Aniztasuna, bizikidetza eta giza eskubideak: 1. GJH, 3. GJH, 4. GJH, 11. GJH eta 16. GJH
4. Adingabeak eta gazteak, Adinekoak eta Familiak: 3. GJH, 4. GJH, 5. GJH eta 10. GJH
5. Ikerketa, antolaketarako aholkularitza eta garapen komunitarioa: 4. GJH, 10. GJH, 11. GJH, 16. GJH eta 17. GJH
6. Politika sozialak eta zeharkako politikak: 11. GJH, 16. GJH eta 17. GJH
7. Orekatuz Batzordea (Berdintasuna): 5. GJH, 8. GJH
8. Izadi Batzordea (Ingurumena eta Jasangarritasuna): 6. GJH, 7. GJH, 13. GJH, 14. GJH eta 15. GJH
9. Batzorde Teknologikoa: 8. GJH, 9. GJH eta 10. GJH
10. Euskara Batzordea eta Nontzeberri: Kultura eta 1. GJH

Agenda 2030 Nazio Batuen Erakundearen ekimen bat da, eta helburua zera du, urratsak egitea guztiontzako hazkunde ekonomikoa, kohesio eta justizia sozial handiagoa lortzea, bakean eta ingurumen-etorkizun jasangarriarekin.

Garapenerako 17 Helburu Jasangarritan azaltzen du nola aritu behar den, eta hor daude sartuta bertako politika publiko guztiak, kanpo-harremanak eta garapenerako lankidetza.

GHJk unibertsalak dira eta eraldatzaile izan daitezen daude pentsatuta.

EDE FUNDAZIOAk bi dimentsiotan egiten die ekarpena Agenda 2030i eta GJHei: bata kanpokoa, jarduera-arlo eta proiektuen zuzeneko ekintzaren bidez; eta bestea barnekoa, Berdintasun, Euskara, Teknologia eta Ingurumen Batzordeen lanaren bidez.

Gainera, kulturaren eta garapen jasangarriaren arteko lotura islatuta dago gure erakundean, gure apustua baita kultura-proiektuen alde egitea, tokiko kultura sustatu eta hari balioa ematea eta hizkuntza normalizatzea.

EDE Ezagutza

Aholkularitza eta ikerketa sozial aplikatuko zentroa gara eta eragile sozial ugarien errealitatetik, jardunbidetik eta esperientziatik abiatuta ezagutza sortzen dugu. Gainera, eragile sozial horiei lagun egiten diegu haien gaitasunak sendotuz. Sarean egiten dugu lan eta gizarte-ehunari eta erakunde publikoei eskaintzen dizkiegu gure ikaskuntzak, betiere, guztien aurrerapenari laguntzeko.
Ezagutzan oinarritu eta finkatzen da gure jarduera guztia. Horrekin, iraupen luzeko aldaketak, inklusiboak eta jasangarriak sortu nahi ditugu.

Arreta-guneak eta jardueren apustuak 2020an:
COVID-19 bat-batean etorri izanaren ondorioz, aldatu egin dira mundu osoko agenda eta lehentasun politikoak eta sozialak. EDE Ezagutza ataleko gure agenda ere aldatu egin zen. Hasieratik saiatu ginen jakiten zer inpaktu izan duen krisiak gure esku-hartze eremuetan, Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan, erakundeen lanaren xede diren pertsonetan, familietan, emakumeek eta gizonek jasandako inpaktuaren arteko desberdintasunak eta abar.
COVID-19aren inpaktua dela-eta, hirugarren sektore sozialeko erakunde txikienei lagun egiteko egiten dugun lana indartu egin genuen, eta gure analisia eta hausnarketa txertatu genituen ekimen eta politika publikoak diseinatzeko prozesuetan. Elkartasunezko babesa emateko eta egoera zailean dauden adinekoen beharrak asetzeko babes-sareak antolatu eta kudeatzeko garaia ere izan da.

EDE Ezagutza, inbertsioa:
3.159.673,00 €

EDE FUNDAZIOA

Ikerketa

Ehun sozialaren eta erakunde publikoen esku jartzen dugu gizarte-garapena sustatzeko esku-hartze sozialaren arloan egiten dugun ikerketa espezializatua.

Pertsonekin egiten dugu lan, eta gure ezagutza aplikatzen diegu haien beharrei; izan ere, ikerketan parte hartuta, aberastu egiten dute lana eta haien burua indartzen dute aldaketarako eragile gisa.

23
ikerketa proiektu

14
entitate artatuta

Berdintasuna pandemia-garaian. COVID-19aren eragina genero-ikuspegitik

Askotariko bigarren mailako iturrietatik datuak bildu ditugu Emakunderentzat, hala, genero-ikuspegitik analisi bat eskaintzeko, gero, analisi horren bidez, hobeto ulertzeko COVID-19aren pandemiak nola eta zergatik izan duen inpaktu desberdina gizonetan eta emakumeetan, eta ez bakarrik gaixotasunaren prebalentziari erreparatuta, baizik ongizate emozionalean, familiako harremanetan, zaintza-lanetan, enpleguan, gizarte-bazterketa mailetan eta abarretan izandako ondorioei ere begiratuta.

Udalerri mailako haurtzaro- eta familia-politikak Euskadin.

Tokiko mailan umeen pobrezia prebenitzera, gurasotasun positiboa sustatzera eta umeen parte-hartzea sustatzera bideratutako EAEko ekimenak identifikatzea eta aztertzea lortu dugu.
Era berean, amaierako txostenean bildu ditugu ume eta nerabeentzat aukerak sortzeko eta haien arteko berdintasun-faltak murrizteko ekimen berriak abian jartzea sustatzeko orientazioak. Eusko Jaurlaritzarentzat egin dugu ikerketa hori.

Familiak eta COVID-19: inpaktua eta Bizkaiko familiok aurrean ditugun erronkak (BBK family)

2020ko martxoan COVID-19aren pandemiak eragindako osasun-larrialdiko egoera deklaratu zutenetik, urruntze sozialeko eta mugikortasuna mugatzeko ezohiko neurriak adostu dituzte eta horiek guztiek mundu mailan pertsona guztien eguneroko bizitza asaldatu dute.
Orain arte ezagutzen ez genuen testuinguru horretan, konfinamenduak aldaketa adierazgarriak eragin ditu familiako harremanetan, lanean, aisialdian, gizarte-harremanetan, zainketetan, ongizate emozionalean eta eskolako bizitzan.
Ikerketa bat garatu dugu, eta horren bidez ezagutarazi dugu egoera honek Bizkaiko familietan izan duen inpaktua, baitaegoera honek erakutsi dizkigun eta jarri dizkigun erronkak ere.

1.000 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte online galdetegi baten bidez (helduak eta adingabeak).

COVID-19aren eragina Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan

Hirugarren Sektore Sozialaren Euskal Behatokiak eginiko azterlana Euskadiko Elkarrizketa Zibileko Mahaiaren, Eusko Jaurlaritzaren Enplegu eta Gizarte Politika Sailaren eta Sareen Sarearen ekimena izan zen, betiere COVID-19ren krisiak Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeetan duen inpaktuaren berri izateko egina. Alarma-egoeraren lehen asteetan, egiten duten lanaren balioa erakutsi zuten erakundeek. Inpaktu hori nolakoa izan zen jakiteak –hartzaileek eta erakundeek izandako arazoak aintzat hartuta– aukera ematen du COVID-19ak sektorean izandako inpaktuaren garrantzia ulertzeko.

"Administrazio publikoek eta gizarteak zoriondu egin gaituzte Hirugarren Sektore Sozialeko erakundeek pandemia bete-betean egindako lan onagatik"

Sareen Sarea

184
erakundek hartu zuten parte online galdetegian

27
erakundeak hartu zuten parte online eztabaida-taldeetan

Aholkularitza

Esku-hartze sozialaren arloan espezializatutako aholkularitza-prozesuak egiten ditugu, eta kudeaketa aurreratuko sistemak eta kalitate-sistemak, etorkizunerako estrategiak, proiektu berritzaileak eta berdintasuna sustatzekoak garatzen ditugu.

Gure ekarpenak indartu egiten du erakunde publiko eta pribatuak gizarte bidezkoagoa, askeagoa eta solidarioagoa garatzeko egiten duten lana; zaurgarritasun-egoera zailenetan dauden pertsona eta kolektiboen bizi-baldintzak hobetzeko ere balio du.

Aholkularitza sozialerako talde bat dugu eta ekonomia, fiskalitate eta lan arloko zerbitzuak eskaintzen ditu erakunde sozialentzat, eta irtenbide pertsonalizatuak eta neurrira eginiko irtenbideak eskaintzen ditu.

Aniztasuna kudeatzeko planaren prestaketa.

Red Acoge sarearen (www.redacoge.org) bidelagun izan gara aniztasuna kudeatzeko egin duten lehen planean. Migratzaile eta iheslarien gizarteratzean espezializatutako erakundeen Estatuko federazioa da Red Acoge. 1991n sortu zen eta Estatuko 23 entitate biltzen ditu. Lehen plan horretan, aniztasunaren aldeko apustu politiko eta estrategikoa sakondu da, zenbait ardatzetan oinarrituta: etnia-kultura, identitate sexuala eta genero-identitatea, identitate funtzionala eta belaunaldi-identitatea.

98
aholkularitza proiektu

181
aholkularitza proiektu

154
entitate artatuta

BBK INDARTU (COVID-19ari lotuta, berezia) programaren edizioa

Bizkaiko entitate sozial ertain eta txikiak indartzeko BBK INDARTU programaren esparruan, eta COVID-19aren pandemiak eta hark entitate sozialen bizitzara ekarritako inpaktuak sortutako inguruabar berezien ondorioz, bide telematikotik egin diegu lagun 11 erakunderi haien beharretan (esku-hartzeko programak egokitzea, barneko parte-hartzea zaintzea, kanpoko komunikazioa doitzea, etab.).

Euskadiko gizarte-zerbitzuen gaur egungo garapenaren ebaluazioa

SiiS - Eguía Careaga Fundazioarekin elkarlanean, laguntza teknikoa eskaini diogu EAEko Gizarte Zerbitzuen I. Plan Estrategikoaren ebaluazio-prozesuari. Gizarte Zerbitzuen Erakunde Arteko Organoak sustatzen du Plan Estrategiko hori, eta Eusko Jaurlaritza da koordinatzailea.
Plan hori, mapa eta memoria ekonomikoa barne hartuta, funtsezko tresnak dira Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren hedapenean aurrera egiteko. Eta Planaren ebaluazioak aukera eman du erakundeek eginiko ahalegina ikusgarri egiteko eta bigarren plana egiteko orientazioak sortzeko.

AfalosteON. Online argitalpena eta elkarrizketak memoriari eta bizikidetzari buruz

EDE Fundazioa kide duen Giza Eskubideen eta Bake Hezkuntzaren Elkarteen Foroak laborategi gastronomiko sozial bat sustatzen du, txokoetan egiten dena, eta bertan, talde txiki bateko pertsonek motibazio politikoko indarkeriari eta haren ondorioei buruzko bizipenak eta hausnarketak partekatzen dituzte elkarrekin espazio babestu batean. Aurten, COVID-19a dela-eta, berrikusi egin da metodologia funtsari eutsita, eta azkenean, plataforma digitaletan egin dira saioak "AfalosteON" izenarekin. Argitalpen batean sistematizatu da esperientzia, hedatzeko.

Informazio gehiago hemen:
www.edefundazioa.org



Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsuaren emakume eta gizonen berdintasunerako plana

Bizkaiko Abokatuen Elkargoari lagun egin diogu emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-egoeraren diagnostikoa eta 2021-2024 aldirako I. Berdintasun Plana egiteko.
Diagnostikoak nahiz planak barneko dimentsioa (kudeaketa, lan-kontratudun langileak) eta kanpokoa (zerbitzuak, elkargokideak, aliantzak, gizarte-erantzukizuna) dituzte txertatuta. Sortu duten Berdintasun Batzordean egin da lan hori, eta inplikatutako eragile guztiek hartu dute parte (langileak, Batzordea, elkargokideak).
Inplikatutako pertsona guztiei berdintasunaren inguruko 20 prestakuntza-ordu eskaini dizkiegu.

Bitoriano Gandiaga Fundazioko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako VI. Plana

Erakundeko emakume eta gizonen berdintasunari buruzko diagnostikoa eta plana egin genuen Bitoriano Gandiaga Fundazioarekin batera (Frantziskotarrek sortutako Zarauzko Lanbide Heziketako eta Batxilergoko Zentroa, Salbatore Mitxelena Ikastola kooperatiba eta Orioko Herri Ikastola kooperatiba).

Hezkidetzarekin lotutako gaiak ere jorratu dituzte diagnostikoan, planean eta irakasle eta kudeaketa-taldeari eskainitako berdintasun-prestakuntzan. Euskaraz egin da prozesu osoa.

EDEKA Idazkaritza Teknikoaren Kudeaketa, Desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien euskal koordinakundea.

2016tik kudeatzen dugu EDEKA Desgaitasuna duten pertsonen ordezkarien euskal koordinakundearen Idazkaritza Teknikoa. Administrazio, ekonomia eta finantza arloko kudeaketa-lanak garatzen ditugu eta Lan Batzordeen eta Batzorde Exekutiboaren logistikaz ere arduratzen gara. Proiektuak gauzatzeko laguntza ere eskaintzen dugu.
EDEKA sarea 8 federaziok osatzen dute: Elkartean, Euskal-gorrak, Featece, Fedeafes, Fevapas, Fevaspace, Fevas-Plena Inclusión Euskadi eta ONCE.

Durangaldean emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko jarduera- eta koordinazio-lanetarako II. Protokoloaren garapena

Protokolo honen esparruan, indarkeria jasaten duten emakumeak artatzen dituzten Durangaldeko udalei (Abadiño, Berriz, Durango eta Elorrio) lagun egin genien haien arteko koordinazioa hobetzeko, eta hala, kalitatezko arreta bermatzeko.
Elkartzeko espazioak sortu genituen etengabeko hobekuntzarako, inguruarekin aliantzak bilatu genituen, eta 2020an funtsezkoa izan da pandemiaren testuinguruan baliabideek nola funtzionatu duten jakiteko adi egotea.

"Idazkaritza Teknikoa funtsezko pieza da EDEKAren engranajeak desgaitasuna duten pertsonen eskubideen alde urratsak egin ditzan"

Aitor Bedialauneta, EDEKAko presidentea

Prestakuntza

Prestakuntzarako ekintzak eta esperientziak eskaintzen ditugu enpleguari, garapen pertsonalari eta erakundeen garapenari lotuta.

Horrekin, gaitzearen bidez, indartu egin nahi dugu elkarteen, hezkuntzaren eta arlo sozialaren ehuna, eta hala, pertsonen eta erakundeen gaitasunak hobetu.

Motibazio politikoko indarkeriaren biktimen eta gizartean arteko topaketak

Bakeolatik indarkeria politikoaren eta gizarteko zenbait sektoreren arteko topaketak antolatu genituen elkartzeko eta hausnarketarako lagungarri diren espazioak sortzeko. Jardunaldi horien helburua izan zen indarkeriak zer inpaktu duen, egunerokoan eta bizitza osoan zehar zer eragin duen bistaratzea. Streaming bidez eskaini ziren saioak azaroaren 16an: “Aitarik ez izatea” eta 2020ko abenduaren 2an: “Ehun soziala berreraikitzea”.

COVID-19ari buruzko prestakuntza-pildorak begiraleentzat

Prestakuntza-pilulak diseinatu genituen aisialdiko begiraleak gaitzeko, heziketa ez-formaleko jarduerak modu seguruan eta COVID-19rik gabe egin ditzaten. Hiru arlotan trebatu ziren: alderdi orokorrak, osasun-alderdiak eta alderdi emozionalak. Hiru pilula horiek 2020 osoan errepikatu ziren apiriletik hasita, heziketa ez-formalean aritzen diren kolektiboetako pertsonentzat.

Prestakuntza: Zer da herritarrek parte hartzea?

2020ko amaieran, bi prestakuntza-saio eskaini genituen Bilboko Udalarentzat, izenburu honekin: “Zer da herritarrek parte hartzea?” Ikastaroak Udaleko zenbait arlotako teknikariei zeuden zuzenduta, eta helburua zen kontzeptu batzuk ordenatu eta eguneratzea, parte-hartzea arautzeko esparruak eta oinarrian dituen printzipioak ezagutzea eta administrazio publikoek sustatutako edozein parte-hartze prozesuren atzean aintzat hartu beharrekoak diren gakoak ezagutzea.

Lidergoa Consorcio Andaluz de Impulso Social partzuergoarentzat

Prestakuntza hau erakundeentzat nahi dugun lidergo-estiloarekin berriro konektatzeko formula eraldatzaile gisa planteatu zen. Hausnarketa, dibertsioa, elkarrizketa, jolasa eta esplorazioa funtsezko elementuak dira proiektuen, taldeen eta pertsonen lidergoan, erakunde eta norbanako gisa aurrera egiteko.

“Saio dinamiko eta atseginak izan ziren, eta EDE Fundazioa une oro egokitu zen gure behar eta eskakizunetara. Oro har, hausnarketa egiteko eta taldean komunikazioa hobetzeko balio izan ziguten; hori zen gure lehentasunetako bat”

Paqui Pérez Lucas,
Oinez proiektua
Gizarte eta Lan arloa

Oinez Programako jardunbide egokien eta genero-ikuspegiaren tailerra

15 lagunez osatutako OINEZ proiektuko taldeari lagun egin genion. Helburua azken 3 urteetan bildutako ezagutza kolektibo guztia, erakundearen eguneroko lanean txertatuta egon dena, partekatzea zen.
Hiru lan saio diseinatu genituen egindako ibilbidea eta ondo egindako gauzak aitortzeko, genero-ikuspegitik egokiak diren esku-hartze sozialeko jardunbideak identifikatzeko, eta bideko korapilo batzuk eta aurrera jarraitzeko alderdiak aztertzeko.
Oinez programak inklusio sozialerako espazio bat sustatzen du Arabako landagunean.

1.280
pertsonak jaso dute prestakuntza

66
ikastaro

1.372
prestakuntza-ordu



Garapen komunitarioa

Erakunde publikoei eta eragile sozialei lagun egiten diegu proiektu komunitarioetan eta parte-hartze-proiektuetan, sareko lanaren bidez.

Espazio komunitarioek pertsonen bizi-baldintzak hobetu egiten dituztela uste dugu. Herritarren parte-hartzearen bidez eta ehun sozialarekin eta erakunde publikoekin elkarlanean ingurune aktibo, kritiko, solidario eta erantzukideak sortzen lagundu nahi dugu.

12
proiektu garatuta

237
parte-hartzaile

Bizikidetza hobetzeko sektoreen arteko lankidetzarako tokiko esperientzien azterketa

Zenbait udalerritako teknikari eta politikariei lagundu egin diegu sailen arteko eta zeharkako lan-dinamika bistaratzen eta sistematizatzen. Helburua silo pentsaera gainditzea, koordinazioa optimizatzea eta baliabide publikoen erabilera eraginkorra bermatzea zen.
Prozesu horretan ikusi dugu oztopoak alderdi teknikoaren eta politikoaren artean hasten direla, eta politikoaren baitan, gizon eta emakumeen artean; hori horrela, parte-hartzaileei funtsezkoa iruditu zitzaien gaitasun profesionalak –bai teknikoak, bai lidergo politikoarenak– harremanetarako gaitasunekin konbinatzea, Udaletan elkar zaintzean oinarritutako barneko kultura sustatzeko eta ondoeza eta laneko mugikortasun nahiz egonkortasun-falta handia saihesteko.

Boluntariotza eta gazteen parte-hartzea sustatzeko Bilboko Udalaren udal-programa

Bilboko Udaleko Gazteria Sailarekin batera, zenbait ekintza aktibatu genituen: think tank bat sortzea gazteen boluntariotzari buruz hausnartzeko, gazteen boluntariotzako ekimenen mapaketa bat prestatzea, Europako Elkartasun Kidegoari buruzko tailerrak boluntariotza-entitateentzako, sentsibilizazio-tailerrak ikastetxeetan... Horren guztiaren helburua udalerrian gazteen parte-hartzea eta boluntariotza sustatzea izan zen.

Barakaldo Lagunkoia: adineko pertsonekin lagunkoia den udalerria

Barakaldo Lagunkoia sustatuko duen adinekoen talde eragilea abian jarri genuen. Adinekoak protagonista izango dituen herritarrek parte hartzeko prozesu bat sustatzea zen helburua, pertsona horiek ongizatearen sortzaile izan daitezen. Deialdi arrakastatsu bat egin genuen motibazio-bideo baten bidez.
Parte-hartzeari eta hiri lagunkoien plan baten fase eta tresnei buruzko prestakuntza-saioak egin genituen, eta lagundu egin zuten saio haiek talde eragile ahaldundu bat, proiektuaren protagonista izango zena, indartzen.

Tokiko politiketan umeen parte-hartzea sustatzea

Tokiko politiketan ume eta nerabeen parte-hartzea parte-hartze organoak sortuta sustatzeko proiektu bat diseinatu genuen Eusko Jaurlaritzarentzat. 2020an, EAEko 9 udalerriri lagun egin genien haien organoak diseinatzen, eta haiekin lanean aritu ginen, bai bakarrik, bai taldeko saiotan, esperientziak alderatzeko eta trukatzeko. Laneko prozesu hau eta haren emaitzak gida batean jasota gelditu dira.

"Proiektuan parte hartzeak gazte boluntarioak sakonago ezagutzeko aukera eta beste entitate batzuekin esperientziak partekatzeko aukera eman digu. Aberasgarria da ideia eta praktika onak partekatzea"

Ana Reguera Gutiez, Gorabide

bolunta

Bizkaian elkartasuna eta parte-hartze soziala sustatzea

Boluntariotzararako eta Gizarte Partaidetzarako Agentzia mundu bidezkoagoa, jasangarriagoa eta solidarioagoa eraikitzen parte hartu nahi duten pertsona, entitate eta eragile sozialen parte-hartzea babestera eta sustatzera dago bideratuta, eta boluntariotza-ekintzak eta parte-hartze sozialerako beste modu batzuk erabiltzen dituzte horretarako.

BBK Fundazioak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta EDE Fundazioak sustatutako ekimena da.

237.278
erabiltzaile

9.708
harpidetza banaketa zerrendetan

377
entitateri eskaini diegu arreta

414.111
bisita webgunean

711
kontsulta artatu ditugu

Bizkaiko Boluntariotza Entitateen Foroaren 10. urteurrenaren ospakizuna

boluntak dinamizatzen duen Boluntariotza Entitateen Foroak 10 urte bete ditu. Urte horietan, 78 entitatek hartu dute parte; 55 lan-saio egin dira; eta 9 ekintza antolatu dira elkarrekin. Guztira, 1.120 boluntario inguruk hartu dute parte.
bForoa izango du hemendik aurrera foroak izena, eta gure lurraldeko erakundeetako boluntarioen kudeaketan bikaintasuna sustatzeko bidea eta etorkizuna dituen espazioa da.

"CARITASen irmo sinesten dugu funtsezkoa dela Foroan parte hartzea bertan ordezkatuta dauden entitate guztiekin egiten den sareko lana hobetzeko. Foroa: helburu berdinak, ahaleginak bateratuta eta sarean lan eginez"

Mavi Laiseca, Bizkaiko Caritaseko boluntariotzaren koordinatzailea

boluntariotzaAstea "Boluntariotza eta parte-hartze soziala"

Ekimen hau Bizkaiko unibertsitateekin elkarlanean garatu genuen UNIKIDE programaren baitan dago kokatuta. Astebetez, zuzeneko eta aurrez grabatutako konexioak egin ziren eta 5 esperientzia-mahai antolatu ziren; 10 hitzaldi tematiko; eta 27 entitate sozialek hartu zuten parte elkarteen erakusleihoan.
Gazteei boluntariotza-erakundeek egiten duten lana ezagutarazteko espazio bat eskaintzea izan zen helburua.

"Elkartasuna orain eta beti" sentsibilizazio-kanpaina

Boluntarioen Nazioarteko Eguna (abenduak 5) ospatzeko, kanpaina bat egin genuen zenbait kanaletatik, komunikabide nagusiak euskarri hartuta, prentsa, irratia eta sare sozialak, Bizkaiko jendearen artean pandemian sortu zen elkartasun masiboari eusteak duen garrantzia zabaltzeko, hala, Bizkaiko 122.000 boluntarioei asko pertsona gehiago batzeko, orain eta beti.

Bizkaia Gara Sareari laguntza

boluntatik, eta Bizkaiko Gurutze Gorriarekin batera, laguntza eskaini genuen Bizkaia Gara laguntza-sarearen antolaketa eta kudeaketan. Bizkaiko Foru Aldundiak jarri zuen sare hori abian, konfinamenduko hilabeteetan oinarrizko elikagaiak eta sendagaiak erostera atera ezin ziren adineko zaurgarrien eta mendekotasuna zuten adinekoen beharrak asetzeko.
3.000 boluntario inguruk erantzun zioten deialdiari. Elkartasun-uholdea izan zen.

EDE Suspergintza

Zerbitzuak eta proiektuak diseinatu eta kudeatzen ditugu; hain zuzen, pertsonen bizi-baldintzak hobetzen dituzten, balioak sustatzen dituzten eta gaitasun indibidual eta kolektiboak garatzen dituzten zerbitzu eta proiektuak. Pertsona guztiak erabat gizarteratzeko egiten dugu lan; batez ere zaurgarritasun-egoeran daudenak gizarteratzeko. Esperientzia zabala dugu esku-hartze sozial, kultural eta hezkuntzakoetan.

Arreta-guneak eta jardueren apustuak 2020an:
Erantzunak egokitzea pandemiak zaurgarritasun sozial handieneko egoeran dauden pertsona eta kolektiboen beharrak eta pandemiagatik jasan dituzten ondorioak aintzat hartuta.
Adinekoentzako arreta-eredu bat aztertzea eta aplikatzea; hain zuzen, zahartze aktibo eta osasungarria sustatzea; mendekotasun, bakardade eta isolamendu soziala prebenitzeko ekintza oinarri dituen eredua, adinekoen autonomia eta bizi-kalitatea hobetzeko programak garatuta.
Harrera eta lagun egitea indarkeriaren askotariko adarrak eta/edo gizartebazterketako egoerak jasaten dituzten emakumeei, haien seme-alabei eta emakumeek haien kargu dituztenei.

EDE Suspergintzaren inbertsioa:
5.957.800,31 €

EDE FUNDAZIOA

Aniztasuna, bizikidetza eta giza eskubideak

Sustatu, diseinatu eta kudeatu egiten ditugu immigrazio, bizikidetza eta giza eskubideen arloko programa aurreratuak, kudeatu egiten dugu aniztasuna eta sustatu egiten dugu tratu-berdintasuna eta ez diskriminatzea.

Horrekin, gizarteari duen aniztasunaz jabetzen eta desberdintasunek ematen duten aberastasunean kohesionatzen lagundu nahi diogu.

Desberdina den horrek aberastu egiten gaitu, eta uste dugu kohesio sozialak aniztasun horren abantailez jabetzea eta aniztasun hori kudeatzen ikastea eskatzen duela. Gure lanak bide horretan ekarpena egitea nahi genuke.

1.723
pertsonak jaso dute prestakuntza immigrazioan eta kulturartekotasunean

122
administrazio publiko artatu ditugu

3.240
ordu aholkularitza juridikoan

145
entitateri eskaini diegu arreta

"Aniztasuna eta askotariko diskriminazioa: gerturatze intersekzional bat" jardunaldiaren antolaketan parte hartu genuen

Ikuspegirekin batera, EAEko Immigrazio Jardunaldien X. edizioa antolatu genuen. Lehen aldiz, edukien arreta gunea zabaldu zen jardunaldietan, eta helburua izan zen hurbilketa bat egiten saiatzea pertsonek eta kolektiboek, kategoriak gurutzatzen direnean (arraza, etnia eta kultura batetik, eta sexua, adina, generoa, sexu-orientazioa bestetik) bizitzen dituzten bizipen eta diskriminazio sakonak ezagutzera.

Kalean bizi diren familiei arreta eskaintzeko sarea

Olakueta Etxetik Bizkaiko 9 entitate sozialen artean eraikitako lankidetzarako eta sarean lan egiteko espazio bat sustatu eta dinamizatu genuen. Elkarrekin aritu ginen lanean haien kargu adingabeak dituzten eta muturreko zaurgarritasun soziala jasaten duten familiekin eta bakarrik dauden emakumeekin.

Sarean lan egiteko oinarriak ezarri ditugu gizarteratzeko zenbait ibilbidetarako, eta hor uztartu ditugu ostatua, lagun egite soziala, lanekoa, hezkuntzako eta komunitarioa; parte hartzen duten entitateen arteko koordinaziorako eta batetik bestera bideratzeko protokoloak eginda.

Egoitza-baliabideen kudeaketa gizarte-bazterketa egoeran dauden pertsonak konfinatzeko

2020an zenbait egoitza-baliabide kudeatu genituen Gipuzkoako Foru Aldundirako, gizarte-bazterketa egoeran eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen konfiinamendua ziurtatzeko.
Zehazki, Orioko eta Hondarribiko aterpetxeetan, eta Donostiako San Juan de Dios ospitaleari erantsitako eraikinean aktibatu ziren baliabideak.
Ostatu eta mantenuaz gain, erabiltzaileei lagun egiteko eta haien bizi-kalitatea hobetzeko lanak garatu ziren.

90 pertsonari eskaini diegu arreta

"Sarea pertsonekin egiten diren esku-hartzeen kontrasterako foro bat da, gauzak egiteko moduak ikasteko lekua, eta pertsona bakoitzaren behar eta aukerei haien bizitzaren norabidea galdu gabe arreta eskaintzeko deia"

Itxaso Urcelay,
Sortaraziko koordinatzailea

Haurrak, nerabeak eta gazteak

Ume, nerabe eta gazteen garapen pertsonal eta sozialerako gizarte eta hezkuntza arloko programak, ekimenak eta zerbitzuak diseinatu eta kudeatzen ditugu.

Hezkuntza berritzeko proiektuak garatzen ditugu kultura digital kritikoaren, bizikidetza eta giza eskubideen, berdintasunaren, parte-hartzearen eta aisialdi osasungarriaren arloetan.

Ikaskuntzarako bizi-esperientziak eta -inguruneak izateko aukera ematen duten programak, horien bidez, autonomia, kontzientzia kritikoa, konpromisoa eta elkartasuna sustatzeko.

Uztartu, indarkeria erradikalizatzearen prebentzioa

2020an Uztartu programaren esperientzia pilotua jarri zen abian. Gizarte eta hezkuntza arloko programa esperimentala da, gazteen artean indarkeria erradikalizatzea prebenitzeko helburua duena, eta Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubide, Bizikidetza eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiak sustatzen du. Guk ere parte hartzen dugu, programa ikastetxeetan eta heziketa ez-formalaren eta kirolaren arloko zenbait entitatetan garatzeko. Pandemiak eragin egin zion esperientzia pilotuari, eta azkenean, bi entitatetan bakarrik ezarri ahal izan genuen programa; 30 lagunek hartu zuten parte.

23.000
ordu gizarte eta hezkuntza arloko programetan

13.720
neska, mutil eta gazte programetan

Esku-hartzeko modu berriak pandemia-garaian: erronkak eta jardueren egokitzapena bulegoetan eta gazteen espazioetan

EDE Suspergintzan kudeatzen ditugun gazteria-zerbitzuetan ahalegin handia egin dugu pandemia-garaian gazteen beharrak asetzeko.
Udalerri bakoitzak bere denbora behar izan du jarduera presentzialari berriro ekiteko, eta talde murriztuetan izan da hasiera.
Hala ere, telematikoki egin da lan, elkarrekin egiteko ekintzak proposatuta –produktu artistikoak sortuz, adibidez bideo musikalak, erronkak sustatuz edo kahoots kulturalen bidez parte hartzea proposatuz–, eta lortu da jardueretan partaide ziren gazteak fidelizatzea.

Bizikidetzarako gizarte eta hezkuntza arloko programak

Pandemiak ekarritako zailtasunak zailtasun, Bakean, Bizikidetzan eta Giza Eskubideetan oinarritutako programa sozioedukatiboak diseinatu eta garatu ditugu Euskadiko eta Nafarroako 60 zentro baino gehiagotan. Horietan, 2.500 pertsonak baino gehiagok hartu dute parte eta esku hartzeko 1.500 ordu baino gehiago inbertitu dira. Programa horietan konpetentziak erdiesten dira egunero izan ohi diren arazoak behar bezala arautzeko eta eskola-komunitate osoan elkarbizitza hobetzeko. Ezohiko egoeragatik, kudeaketa emozionalari eskaini diogu arreta.

Neguko Teknologia Laborategiaren topaketa gazteentzat. Antolatzailea: Haritulab.eus

Haritulab.eus webgunea 2020ko amaieran sortu genuen gazteen artean heziketa digital kritikoa sustatzeko, eta horri lotuta abian jarritako lehen ekimena topaketa bat izan zen: “Gazteei zuzendutako Neguko Teknologia Laborategia”. Telematikoki egin zen topaketa, COVID-19aren garai honek eskatzen duen moduan, eta topaketan, 11 tailer/hitzaldi izan ziren eta zenbait aditurekin bildu ginen.

4 gai:
- Autodefentsa digitala
- Fabrikazio digitala
- Bideo-jokoak
- Sorkuntza digitala

11 tailer

42 parte-hartzaile

7 irakasle

“Gazteei eta hezkuntza-komunitateari aukera berriak eskaintzea teknologia eta digitalizazio-prozesuei lotuta gauzak egiteko eta pentsatzeko”

Diana Franco,
Técnica Haritulab.eus

Adinekoak

Adinekoei, mendekotasunak dituztenei, familia zaintzaileei eta zaintzaile profesionalei zuzendutako programak eta zerbitzuak diseinatzen ditugu.

Besteak beste, dinamizazio eta zahartze aktiboaren arloan, esku-hartze psikosozialean, lagun egiteetan, laguntza psikologikoan eta entrenamendu emozionalean aritzen gara.

Horrekin guztiarekin, adinekoen parte-hartzea eta ahalduntzea indartu nahi ditugu, gizarte lagunkoiagoa sustatu, haien beharrak txertatzeko eta duten potentziala aprobetxatzeko gai izango dena. Era berean, familia zaintzaileen eta zaintzaile profesionalen bizi-kalitatea hobetzen lagundu nahi dugu.

14.908
ordu programa eta zerbitzuetan

4.715
parte-hartzaile programetan

ONDOZAIN: mendekotasunak dituzten pertsonen aurkako tratu desegokiko egoerak prebenitzea

Ondozain izeneko programa jarri dugu abian, Bizkaian mendekotasuna duten pertsonen aurkako tratu desegokiko kasuen maila murrizteko. Funtsezko ardatzetako bat esku-hartzea biktimarekin nahiz tratu desegokiaren arduradunarekin egitea izan da, betiere, bien arteko lotura berreskuratzea helburutzat hartuta. Epe laburrera lortutako emaitzak ondorioak minimizatzearekin daude lotuta, eta kasu batzuetan, utzikeria-egoerak saihestearekin ere bai.

Autonomia pertsonala sustatzea

Autonomia Pertsonala Sustatzeko Bizipoz Nerbioi Zentrotik, mendekotasun-arriskuan dauden edo mendekotasun moderatua duten 60 urtetik gorakoen autonomia eta bizimodu aktiboa sustatzen jarraitzen dugu, okerrera egitea prebenituz, eta haien bizi-kalitatea hobetzeko arreta integrala eskainiz.
Gaur egungo pandemia-egoera dela-eta, bizkortu egin behar izan dugu programa telematikoen erabilera, egoera berrian laguntzeko eta lagun egiteko eta bakardadea eta haren arriskuak arintzeko.

Parte-hartzea eta harreman sozialak sustatzea

Laguntzeko eta gizarte-babesa eskaintzeko zerbitzutik, bakarkako laguntzari eusteko ari gara lanean, instituzionalizazio-urte asko dituzten pertsonen gizarte-laguntzako beharrak asetzera zuzenduta, edo etxean bakarrik bizi direnei eta alde horretatik gabeziak dituztenei zuzenduta. Askok, askotan, isolamendu- eta bakardade-egoerak dituzte.
Osasun-egoera dela-eta, egokitu egin behar izan dugu pertsona horiekin harremana izateko modua, eta horretarako, formatu berriak eta tresna telematikoak erabili ditugu. Horien bidez, laguntza hori, batez ere konfinamenduan kalera irten ezinik egondakoan, hain beharrezkoa den hori, sentitzen jarraitu ahal izan dute.

"Asko gustatzen zait laguntzailea nire bila etorri, eta ospitaletik kanpora gauzak egin ahal izatea"

Bermeoko ospitale psikiatrikoko pazientea

"Mugikortasun handiagoa lortu dut, eta etxetik ateratzeko lehen baino interes handiagoa dut. Oso ondo, oso pozik nago guztiarekin"

Emilia Etxebarria
Autonomia Pertsonala Sustatzeko Bizipoz Nerbioi Zentroko erabiltzailea

Zaintzen dutenak zainduz pandemia-garaian

Mendekotasunak dituzte senideak zaintzen dituzten pertsonek senidearen zainketarekin eta beren buruaren zainketarekin lotutako abileziak eskuratzeko programak garatzen jarraitzen dugu. Gainera, aurten harremanetarako formatu berriak sortu ditugu, eta teknologiak bidelagun izan ditugu horretan. Harremanetan murrizketak, gaixotzeko eta kutsatzeko beldurra izan ditugun garai honetan zaintza-lanetan aritzen diren familiei laguntzeko, ase beharreko behar berriak daudela jabetu gara. Ziurgabetasun-garai honetako beharrak.

174 gizon

698 emakume parte-hartzaile

2.475 ordu esku-hartzeetan

Emakumeen aurkako indarkeria matxista

Harrera eskaini eta lagun egiten diegu indarkeria matxista jasan duten emakumeei, haien seme-alaba adingabeei eta emakumeek haien kargu dituzten pertsonei.

Gure konpromisoa eta borondatea emakumeen, gizonen, mutikoen eta neskatilen eskubideetan, erantzukizunetan eta aukeretan berdintasuna bermatuko duen gizarte bat eraikitzea da. Gure arreta-ereduaren ikuspegiak txertatuta ditu giza eskubideak, feminismoa eta ahalduntzea helmuga eta metodologia gisa, eta kontuan hartzen dugu emakumeen aniztasuna eta jasan ditzaketen askotariko diskriminazioak. Arreta osoa eta bakarkakoa eskaintzen saiatzen gara, komunitatean parte-hartzea eta komunitatearekiko lotura aintzat hartuta. Lagun egiteko prozesu integral eta malguak planteatzen ditugu, pertsona ardatz hartuta.

Berehalako harrera-zerbitzua eskaintzen diegu indarkeria matxistaren biktima diren emakumeei eta haien seme-alabei.

Bizkaiko Foru Aldundiaren mendeko zerbitzua kudeatu genuen osasun-larrialdiaren egoeran, martxotik ekainera, indarkeria matxista jasandako emakumeen eta haien seme-alaben urgentziazko beharrak asetzeko.
Emakumeei eta adingabe horiei denboratarte horretan babesa, laguntza, sostengua eta lagun egitea eskaintzeko jarri zen baliabidea abian.

Egoitza-zerbitzuak: berehalako harrera-zentroa (Urrats I), egonaldi ertainetarako harrera-zentroa (Urrats II), eta autonomiarako etxebizitzak indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzat

2020an hasi ginen Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendekoa den zerbitzu honen kudeaketa osoaz arduratzen. Egoitza-harrera eskaintzen die zerbitzuak indarkeria matxistaren biktima diren emakume adinez nagusiei edo adingabe emantzipatuei, haien seme-alaba adingabeei eta emakume horien mende dauden haien karguko beste pertsona batzuei (adinez nagusiak diren seme-alabak eta/edo mendekotasunak dituzten helduak). Generoaren autokontzientzia eta egitura sexisten aitorpena sustatzen du zerbitzuak, horiek emakumeek jasaten duten indarkeria-egoeran elementu adierazgarritzat hartuz. Bizikidetzarako esparru segurua eta babestua, emakumeek autonomia berreskuratzea sustatzeko.

> *"Emakume bati eta haren familiari indarkeriarik gabeko etorkizun baterantz lagun egitearen prozesua ikaskuntza bat da gertu gaudenontzat, eta indarren eta ausardiaren aliantza gisa sentitzen da"*
>
> *Lide Marco,*
> *Esku-hartze arduraduna*

119 emakume heldu artatu ditugu

67 adingabe artatu ditugu

2020an hauen kudeaketarekin jarraitu genuen:

Bizkaiko Foru Aldundiko Emakumeak Babesteko eta Familiei Laguntzeko Zerbitzuaren hiru programa

- Etxean emakumeen aurka egindako indarkerian espezializatutako familiei laguntzeko programa.
- Bizkaiko gizarte-babeseko eragileen Sarea programa: Tartekari Sarea
- Bakarrik edo seme-alabekin, edota kargura dituzten pertsonekin dauden emakumeentzako egoitza-zerbitzua

Nosotras Contamos

Hezkuntza ez-formalaren eta aisialdiaren esparruan bikote- eta bikote ohi-harremanean biktimak diren gazteak sentsibilizatzeko, atzemateko eta haiekin esku-hartzeko proiektua. Bizkaiko Foru Aldundiko Berdintasun Zuzendaritzak babestu du.

Atzarri

ATZARRI emakume boluntarioen proiektua, indarkeria jasaten duten emakumeei eta haien seme-alabei laguntzea erabakitzen duten aisialdiaz gozatzeko babestutako eremua eta haur-eskola zerbitzua eskainiz. Eusko Jaurlaritzako Berdintasuna, Justizia eta Gizarte Politiken Sailak babestutako programa da.

30 elkartek jaso dute arreta

338 emakumek jaso dute arreta

158 adingabek jaso dute arreta

Familiak

Familiei zuzendutako programak eta zerbitzuak diseinatzen ditugu; adibidez, gaitze eta laguntza osoa emateko zentroak eta seme-alabak hazteko lagun egitea.

Hala, lagun egin eta babesa eman nahi diegu zailtasun-uneak bizitzen ari diren familiei, gelditu, hausnartu eta gauzak egiteko beste modu batzuk ikas ditzaten. Horiez gain, mendekotasuna duten seme-alabak haztearekin eta zaintzearekin lotutako beste laguntza batzuk behar dituzten familiei ere lagun egin eta babesa ematen diegu.

5.150
familia parte-hartzaile jarduera, hitzaldi eta tailerretan

132.444
bisita webgunean

1.716
pertsonak erabili dituzte BBK Family zerbitzuak

BBK Family zerbitzuak indartu egin ditu online zerbitzuak pandemian

COVID-19aren ondorioz bizitzen ari garen egoera maila guztietan da oso zaila. Horregatik, BBK Family zerbitzuan laguntza-baliabide gehiago eskaintzen saiatu gara familiek haien gaitasunak hobetu eta behar duten laguntza bila dezaten. Helburu horri begira, BBK Family Learning online prestakuntza jarri genuen abian, eta webinarrak ere egin genituen adituekin. Era berean, "Etxeak eta COVID-19: Bizkaiko familiok aurre egin beharreko inpaktuak eta erronkak" azterlana sustatu genuen familia horien beharrak ezagutzeko, eta kontziliazioari buruzko sentsibilizazio-proiektu bat jarri genuen abian, ETBn ikusgai izan zen bideo batekin eta entitateei zuzendutako lehiaketa batekin.

"Zuek eta zuen gisako profesionalek eskaintzen duzuen zerbitzua zoragarria da, eta gainera, doakoa. Gure zalantza guztiak batera eta ikuspuntu egokiarekin argitu dituzue"

BBK Familyren erabiltzaile bat, ama

Nontzeberri

Nontzeberrik asmatu du euskal gizarte bidezkoagoa, solidarioagoa eta euskaldunagoa garatzen laguntzeko adi egoten. Eta pertsonen ahalduntzea sustatzeaz arduratu gara, aldaketa inklusibo eta sostengarria lortzeko, hezkuntzaren, lanaren eta kulturaren dimentsio sozialean beharrezkoa den garapena lortzeko.

3.767
jarraitzaile Twitterren

2.130
jarraitzaile Facebooken

46.236
bisita webgunean

Horretarako, Nontzeberrik laneko ildo berriak prestatu ditu kultura, emakumea, immigrazioa, kulturartekotasuna eta beste zenbait gairen inguruan, hala, arlo horietan euskara sustatzeko, eta bide horretatik jendea gure hizkuntzara erakartzeko. Era berean, inguru horietako jendearentzat premiazkoenak diren albisteen bozgorailulana ere egiten du.
Horren guztiaren ondorioz, zenbait proposamen kultural egin nahi ditugu inklusio soziala, parte-hartze soziala eta euskararen ezagutza bideratzeko, beti euskaratik eta euskararentzat, hizkuntza-normalizazioa lortzeko helburuarekin.
Nontzeberrik zuzenak eta argiak ditu lanerako ildoak, euskara eta euskal kultura, eta informazio sozialagoarentzako espazio berriak ari da orain garatzen.

www.nontzeberri.eus

EDE Enplegu Inklusiboa

Prestakuntzarako, bitartekaritzarako eta lagun egiteko baliabideak eskaintzen ditugu zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonentzat enplegua eta lan-munduratzea lortzeko.
Gainera, ekonomia sozialaren arloan enpresa-aukerak sortzen ditugu, proiektuak inkubatu eta pertsonei lagun egiten diegu horiek abian jartzen eta sendotzen.

Arreta-guneak eta jardueren apustuak 2020an:
Enplegu inklusiboaren arloan erreferentziazko entitatea izan nahi dugu, eta horretarako garatzen ditugu gizarteratzeko eta lan-munduratzeko zerbitzu eta programa integralak, emaitzak ardatz dituztenak.
Bizi dugun pandemia-egoeraren aurrean enplegu inklusiboa eta kalitatezkoa berreskuratzen lagundu nahi dugu, emakumeen eta zaurgarritasun-egoeran dauden pertsonen kolektiboari bereziki erreparatuz
Berreskuratu egin nahi ditugu 2020ko egoeragatik galdutako laneratzeko eta gizarteratzeko postuak, lehendik dauden proiektuak berraktibatuz eta garapen eta proiektu berriak esploratuz.

EDE Enplegu Inklusiboa, inbertsioa:
5.281.028,10 €

EDE
FUNDAZIOA

Suspertu S.L. Gizarteratzeko enpresa

Suspertu SL lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen gizarteratzea eta lan-munduratzea helburu duen enpresa da.

Oinarrizko prestakuntzako, lanerako prestakuntzako eta orientazioko jarduerak egiten ditugu, enplegu normalizatua lortze aldera.

Enplegu inklusiboa sortzen dugu. ATERI marka komertziala erabilita egiten dugu lan ikasle eta kirolarien egoitzen eta egoitza sozialen kudeaketan; hostel eta gazteentzako aterpetxeak, ostatu-establezimenduak eta turismo-zerbitzuak ere kudeatzen ditugu.

Lan-merkatuan sartzeko zailtasunak dituztenak gizarteratzen eta lan-munduratzen saiatzen gara; baita kudeatzen ditugun zerbitzu eta instalazioen kalitatea bermatzen ere.

www.ateri.net

12
instalazio

3.200
bisita webgunean

11
programa egin dira aterpetxeetan

85.975
egonaldi

4.324
jarraitzaile Facebooken

Ateriren parte-hartzea alarma-egoeran aktibatutako larrialdiko ostatuen sarean

Martxoaren erdialdean alarma-egoera ezarri zenean, Suspertutik, Ateri sarearen bidez, sustapen-lana egin genuen bazterketa-egoeran egon eta ezarritako etxeko konfinamendua igarotzeko eta oinarrizko beharrak aseta izateko espazio seguruak behar zituzten pertsonei ostatua emateko larrialdietako baliabideak aktiba zitezen. Askotariko profiletako pertsonei eskaini zitzaien arreta Bilbo Hostel egoitzan, Apostolikoen egoitza sozialean, Mañarikua-Derio egoitzan eta Atxuri egoitzan.

188 pertsona artatuta

8.581 egonaldi mantenu osoan

Pandemiak Susperturen jarduerari eta lan-egoerari lan-munduratzeko enpresa gisa ekarri dizkion ondorioak

2020ko pandemia-egoerak nabarmen eragin die ostalaritzaren eta mugikortasunaren sektoreei (turismoa, eskolako jarduerak, kirol eta kultura arloko jarduerak), eta horregatik eragin dio bete-betean Suspertuk Ateri Sarean egiten duen lanari. Instalazio asko itxi egin dira, eta horrek Suspertuko langileei, Susperturen funtsari, eragin die.
ABEEE orokor bat izapidetu behar izan dugu plantilla osoarentzat, eta ezin izan ditugu prozesuak amaitzen edo lagun-egite prozesuan murgilduta zeuden pertsonen kontratuak berritu.

Plantillan **90** pertsona izatetik **58** izatera

44 pertsona ABEEEren eraginpean

Enplegu inklusiboa pandemiaren aurrean

Gizarte osoari ezarritako alarma-egoeraren eta konfinamenduaren hasierak arreta presentziala etetea ekarri zuen, baina ez ziren eten enplegagarritasuna hobetzeko eta/edo gizarteratzeko zein lan-munduratzeko prozesuetan zeuden pertsonen beharrak. Alderantziz; haien beharrak, gehienen kasuan, aldatu eta/edo handitu egin dira COVID-19ak sortutako osasun- eta ekonomia-krisiaren inpaktuagatik.

2020an, gure zerbitzu eta programen erabiltzaileekin egindako lana ez da gelditu, eta gure metodologiak testuinguruak eskaintzen zizkigun aukeretara egokitu ditugu, helburu hauek lortzeko:

- Erabiltzaileekin sortutako loturari eustea
- Enplegagarritasuna eta laneratze nahiz gizarteratzea hobetzeko abiarazitako planekin jarraitzea
- Gizartea eta lana aktibatzeko tresnak etengabe berrikustea eta esku hartzeko modalitate ez-presentzial batera egokitzea
- Babes eta euste-lana egitea egoera zail hauetan.

1.299
pertsona parte-hartzaile

169
lan-munduratze

8.277
ordu laneko orientazioan

12.582
prestakuntza-ordu

44
prestakuntza-ekintza

43.400
ordu praktiketan

360
enpresa kolaboratzaile

Enplegurako prestakuntza

Langabezian daudenei edo lan hobea aurkitu nahi dutenei zuzendutako prestakuntza eskaintzen dugu

Horretarako, pertsonak dira gure ardatz, eta prestakuntza-aukera zabala eskaintzen diegu lan-merkatuaren joerak kontuan hartuta eta irakasle prestatuekin. Lanbidek homologatu du gure lana. Lanik gabe daudenek lanerako gaitasuna hobetzen laguntzeko ezagutzak eta gaitasunak eskuratzea nahi dugu.

"Astebetez egon nintzen etxean konfinatuta eta urrutiko eskolak eman nituen, Oso esperientzia positiboa izan zen, batez ere une hartako taldearen jarrera bikainari esker"

Ricardo,
Irakaslea Enplegurako Prestakuntzan

Pandemia-egoera kontuan hartuta, prestakuntzarako beste metodologia batzuk

2020an bizitako konfinamendu- eta deskonfinamendu-egoerak prestakuntzarako formula berriak sortzera eraman gintuzten, prestakuntza-prozesuekin ikasgelako presentziarik gabe jarraitu ahal izateko. Modu pertsonalizatuan zehaztu behar izan genuen zer prestakuntza-modalitate zen ikasle bakoitzarentzako egokiena, ez baitzituzten ikasle guztiek baliabide, bitarteko eta ezagutza digital berdinak.
Gure ikasleen ikaskuntza eta gaitzea bermatzea oinarritzat hartuta, honako ekintza eta baliabide hauek erabili genituen: ordenagailu eramangarriak uztea Interneterako konexioa izan arren, horretarako gailurik ez zuten pertsonei; ikasgelako prestakuntza online prestakuntzara egokitzea kode irekiko Moodle plataformaren bitartez; material didaktikoa inprimatzea eta mezularitza bidez bidaltzea; eta jarraipen sakona eta telefonozko komunikazio eraginkorra telefono mugikorren bidez, WhatsApp-a erabilita...
Informazio gehiago hemen:
www.edefundazioa.org

Gaztebarri

Enplegu-programa Bilboko gazteentzat

Enplegu Inklusibotik, Lanbiderekin eta Bilboko Udalarekin elkarlanean, zaurgarritasun sozialeko egoeran zeuden Bilboko gazteei zuzenduta-ko proiektu berri bati ekin genion 2020aren amaieran. Gaztebarri izena hartu duen proiektuak uztartu egiten ditu prestakuntza, praktikak, laneko aktibazioa eta enpresekin egiteko lana, eta Bilboko gazteei COVID-19aren ondorioz sortutako erronka berriei aurre egiten lagun-tzea du xedea.

""Errealizatu egin nahiz, sentitu egin dut, ikasi egin dut. Amaierako puntu bat zegoen lekuan hasiera berri bat marrazteko gai izan naiz"

Zaira



Parte-hartzaileak prestakuntza jasotzen ari dira telelaguntzari, pertsona eta be-zeroentzako arretari, mikroinformatikari eta gauzen Interneti buruz –kontzeptu horiek balioa hartu dute pandemia-ga-raian–; baita gizarte eta lan arloko trebe-ziak hobetzeko ere. Aipagarria da, gainera, enpresak kolektibo horrentzat lan-auke-rak sortzearen inguruan kontzientziatzeko egindako lana.

Emaktiva

"Emaktivak beste ikuspegi batetik begiratuta erakutsi zizkidan nire trebeziak; emakume indartsua naizela eta oraindik bizitzeko asko dudala erakutsi zidan"

Rusudan

Gizarte-egoera ahulean dauden emakumeei lan-munduratzeko eta gizarteratzeko beren prozesuetan laguntza ematen dien programa integrala da

Emaktivak emakume gipuzkoarrei lagun egiten die

Emaktivan gure esku-hartzea zabaldu, eta Gipuzkoara iritsi gara. Gure laneko eredua Gipuzkoako Foru Aldun-diaren Elkar EKIN Lanean estrategiarekin lotuta dago. Enplegagarritasuna hobetzea eta gizarte-bazterketaren aurka egitea sustatzen du Estrategia horrek.
Hiru hilabete bakarrik daramatzagu Gipuzkoan, eta ho-geita hamar bat emakumerekin ari gara jada lanean; gainera, lurraldeko 260 entitate eta administraziorekin jarri gara harremanetan.
Emaktivan zaurgarritasun-egoeran dauden emakumee-kin lanean eta haiei lagun egiten jarraitzen dugu laneko aktibazioaren eta ahalduntzearen bidez, haien enple-gagarritasuna eta autonomia pertsonala hobetu dadin.

EDE Nazioartekoa

Giza garapena eta ehun soziala sustatu nahi ditugu, eta erabat inklusiboa izango den gizarte baten alde eta itun sozial berrien alde lan egin. Gure begirada zabaldu eta ekarpen bat egin nahi diogu garapen jasangarriari eta inor atzean utziko ez duen munduaren eraikuntzari.

EDE FUNDAZIOA

Nazioartea

Europako Programen Osoko Zerbitzuak eta gure Nazioartea ataleko lantaldeak Europako finantzaketa duten proiektuen informazioari, aurkezpenari eta izapidetzeari euskarria eta laguntza emateko jarduera nagusia mantendu du 2020an.

2020an, aintzat hartuta EBk pandemian eta pandemia ostean izandako zeregina, eta espezifikoki aintzat hartuta Europar Batasunaren 2021-2027 aldirako finantza-esparru berria, informazioa kudeatzeko eta hedatzeko lanak izan du eta du lehentasuna.

Europako 25 deialdi baino gehiago baloratu eta proposamenak aurkeztu ditugu hainbat arlotan: Erasmus +, Babes-etxeen Europako Funtsa, Migrazioa eta Immigrazioa, Akitania-Euskadi-Nafarroa Euroeskualde Berria, beste batzuen artean. Gainera, jarraitu egin dugu gure Europe Direct Bizkaia bulegoko lanarekin. Europako Batzordearen tokiko informazio-puntua da Europar Batasunarekin lotutako hainbat gairen inguruan informatzeko, sentsibilizatzeko eta jakinarazteko. 2020an, jarraitu egin dugu GJH eta Agenda 2030 gure estrategia, ekimen eta proiektuetan txertatzeko urratsak egiten.

EU-Family: familia-politikei buruzko ezagutzaren zaintza eta sistematizazioa

EU-Family gidan egituratuta jaso ditugu nazioarteko familia-politiken inguruko informazio-iturri, eragile, aditu, webgune eta eduki nagusiak. Batetik, amaierako emaitzak alor honetan erabakiak hartzen eta ekintzak garatzen laguntzeko balio lezakek, eta bestetik, Europako familia-politikei buruzko erreferentziazko material/tresna ordenatua eta sistematizatua izaten.

Agenda 2030ean, Garapen Jasangarriko Helburuetan, Basque Country 2030 Agendan, 2019-2024 Europako Batzordearen eta Europarako Agenda Estrategikoaren lehentasunetan eta Next Generation EU tresnan, gure helburuarekin eta jarduerarekin lotutako aukera ikusten dugu: planeta jasangarriagoan eta mundu hobean giza garapena sustatzea gizarte bidezkoagoak eta berdintzaileagoak eraikiz.

"Europe Direct Asturias-entzat, sareko lanak beste lurralde batzuetako esperientziak partekatzeko eta ezagutzeko, eta haien erronkak eta arazo komunei emandako irtenbideak ezagutzeko balio izan digu. Asturiasetik zuen jendearengana, eta alderantziz, iristeko aukera eman digu. Asko gustatu zaigu!!"

Sonia Iglesias,
Europe Direct Asturias

Europe Direct sarearen kanpaina: eta zuk? Zer egiten duzu ingurumenaren alde?

Ingurumenaren Nazioarteko Egunaren harira, Europe Direct sareko 24 zentrok kanpaina birtual bat abiarazi genuen etorkizuneko erronka garrantzitsuenetako bati buruz sentsibilizatzeko: ingurumenaren zaintza eta kontserbazioa, Europarentzat lehentasun bihurtuak Europako Itun Berdearen bidez. Horretarako, zenbait bideo grabatu genituen, eta horietan, pertsona batzuek galdera hau erantzuten zuten: Eta zuk? Zer egiten duzu ingurumenaren alde?

Europa: kohesioa eta erronka sozialak, 2021-2027

Otsailean Europar Batasunaren kohesio-politikari buruzko jardunaldi bat antolatu genuen eta bertan, gobernantzari eta etorkizuneko erronkei buruzko gogoeta egin genuen. Jardunaldi hartan, herritarrekin hitz egin eta eztabaidatu genuen, Euskadin, azken 30 urte hauetan, kohesio-politikak zer esan nahi izan duen, eta zer erronka dakartzan 2021-2027 aldi berriak.



Maiatzak 9: Ospatu Europaren Eguna etxetik!

Maiatzaren 9an, Europaren Eguna ospatu genuen. 2020an, konfinamendua medio, ospakizun hori gure sare sozialetara eraman, eta hiru ekimen abiarazi genituen:

- Hitzeko Europa baten alde: balio europarrak. Galdera honi erantzunez etxean egindako bideoak: Zer hitzekin eta zer baliorekin identifikatzen duzu EB?
- #EuroparenOrdua. Ordubetero Europako literatura-lan baten izenburua argitaratu genuen.
- #EuropaEtxean. EBri buruzko gai orokorren inguruko lehiaketa.

Kontuak argi

EDE FUNDAZIOA

GOBERNU-ORGANOAK

EDE Fundazioa

Jon Joseba Mancisidor Solaberrieta,
Presidentea
Jose Ignacio Eguizábal Escribano,
Presidenteordea
Maria Elena Ayarza Elorriaga,
Diruzaina
Jose Alberto Vicente Otxoa,
Patronatuko ohorezko kidea
Matilde Elexpuru Soloaga,
Batzordekidea
María Begoña Marañón Unanue,
Batzordekidea
Rut Martínez Muñoz,
Batzordekidea
Asier Rodríguez de Pedro,
Batzordekidea
Rafael Ruiz de Gauna i Torres,
Batzordekidea
Josefa Moleón Caro,
Batzordekidea
María Silvestre Cabrera,
Batzordekidea
Mª Jose Torres Perez,
Batzordekidea
Víctor González Prieto,
Idazkari ez-patronoa

Suspergintza Elkartea

EDE Fundazioa
Euskalerriko Eskautak Bizkaia
Ostargi Elkartea

Suspertu SL

EDE Fundazioa
Suspergintza Elkartea

EDE Fundazioa

Datu ekonomikoak

Diru-sarrerak

Diru-sarrerak guztira 4.867.801,44 €

Diru-sarreren xehetasunak

Erabiltzaileen kuotak	1.583.218,52 €	32,52%
Hitzarmenak	1.160.000,00 €	23,83%
Dirulaguntzak eta donazioak	2.079.663,97 €	42,72%
Kudeaketako bestelako sarrerak	44.918,95 €	0,92%



Finantzaketa

Publikoa	3.209.706,12 €	65,94%
Pribatua	1.658.095,32 €	34,06%

Finantzaketaren xehetasunak

Erkidegoetako gobernuak	1.942.371,45 €	39,90%
Foru Aldundiak	769.575,82 €	15,81%
Udalak	280.279,09 €	5,76%
Estatua eta Europakoa	217.479,76 €	4,47%
Bestelakoak	1.658.095,32 €	34,06%



Gastuak

Gastuak guztira 4.869.624,02 €

Gastuen xehetasunak

Langileak	3.655.049,54 €	75,06%
Ustiaketa gastuak	1.037.277,07 €	21,30%
Finantza gastuak	29.404,79 €	0,60%
Amortizazioak	147.892,62 €	3,04%



Helmuga

Partaidetza	848.892,32 €	17,43%
Erakundeak	838.549,67 €	17,22%
Enplegua	1.709.951,16 €	35,11%
Giza eskubideak	288.042,42 €	5,92%
Zeharkako politikak eta politika sozialak	1.184.188,44 €	24,32%



Kontabilitateko emaitza, 2020

* Entitate ikuskatzailea Auren

Gastuak guztira	4.869.624,02 €
Diru-sarrerak guztira	4.867.801,44 €
Emaitza kontablea	**-1.822,58 €**

Suspergintza Elkartea

Datu ekonomikoak

Diru-sarrerak

Diru-sarrerak guztira 7.037.962,13 €

Diru-sarreren xehetasunak

Diru-sarrerak zerbitzuka	5.607.952,26 €	% 79,68
Hitzarmenak	380.843,10 €	% 5,41
Dirulaguntzak eta dohaintzak	1.045.773,17 €	% 14,86
Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	3.393,60 €	% 0,05



Finantzaketa

Publikoa	6.137.622,20 €	% 87,21
Pribatua	900.339,93 €	% 12,79

Finantzaketaren xehetasunak

Eusko Jaurlaritza	1.412.236,99 €	% 20,07
Foru Aldundiak	3.345.782,58 €	% 47,54
Udalak	1.317.516,63 €	% 18,72
Estatua eta Europa	62.086,00 €	% 0,88
Beste batzuk	900.339,93 €	% 12,79



Gastuak

Gastuak guztira 7.053.869,39 €

Gastuen xehetasunak

Langileak	4.809.477,90 €	% 68,18
Ustiapen-gastuak	581.433,29 €	% 8,24
Ekarpenak eta laguntzak	1.644.247,15 €	% 23,31
Finantza-gastuak	549,72 €	% 0,01
Amortizazioak	18.161,33 €	% 0,26



Helmuga

Haurtzaroa eta gazteria	649.892,41 €	% 9,21
Emakumea	2.283.197,23 €	% 32,37
Helduak eta familiak	946.593,31 €	% 13,42
Kulturartekotasuna	895.919,99 €	% 12,70
Bazterketa	948.459,53 €	% 13,45
Aterpeak eta instalazioak	1.329.806,92 €	% 18,85



Kontabilitateko emaitza, 2020

* Entitate ikuskatzailea Auren

Gastuak guztira	7.053.869,39 €
Diru-sarrerak guztira	7.037.962,13 €
Emaitza kontablea	**-15.907,26 €**

Suspertu SL

Datu ekonomikoak

Diru-sarrerak

Diru-sarrerak guztira 2.351.675,70 €

Diru-sarreren xehetasunak

Diru-sarrerak zerbitzuka	894.980,04 €	% 38,06
Dirulaguntzak eta dohaintzak	1.425.915,54 €	% 60,63
Kudeaketako beste diru-sarrera batzuk	30.780,12 €	% 1,31



Finantzaketa

Publikoa	595.896,34 €	% 25,34
Pribatua	1.755.779,36 €	% 74,66

Finantzaketaren xehetasunak

Eusko Jaurlaritza	486.971,22 €	% 20,71
Udalak	104.730,80 €	% 4,45
Estatua eta Europa	4.194,32 €	% 0,18
Pribatua	1.755.779,36 €	% 74,66



Gastuak

Gastuak guztira 2.475.008,49 €

Gastuen xehetasunak

Langileak	1.727.947,28 €	% 69,82
Ustiapen-gastuak	715.820,41 €	% 28,92
Finantza-gastuak	6.862,43 €	% 0,28
Amortizazioak	24.378,37 €	% 0,98



Instalazioak

Egitura	383.898,19 €	% 15,51
Bilbo	680.027,81 €	% 27,48
Derio-Atxuri	502.844,13 €	% 20,32
Lekeitio	235.830,84 €	% 9,53
Fadura	366.620,59 €	% 14,81
Beste instal. eta aterpetxeak	305.786,94 €	% 12,35

Kontabilitateko emaitza, 2020

* Entitate ikuskatzailea Auren

Gastuak guztira	2.475.008,49 €
Diru-sarrerak guztira	2.351.675,70 €
Emaitza kontablea	**-123.332,79 €**

Eskerrik asko!

Urtero bezala, garatzen dugun jardunaren zati bat baino ez dugu nabarmentzen memorian. Zerrenda horretan, 2020an aldaketa iraunkor, inklusibo eta jasangarrien aldeko apustua egiten jarraitzeko gugan konfiantza izan duten erakunde eta erakunde lagun batzuk ageri dira. Gure jarduera ez litzateke posible izango zuen laguntzarik gabe eta mundu bati eusteko gogoz.

EDE FUNDAZIOA

- Abadiñoko Udala
- Barakaldoko Udala
- Berrizko Udala
- Durangoko Udala
- Elorrioko Udala
- Etxebarriko Udala
- Getxoko Udala
- Trapagarango Udala

- Ai Laket!!
- Amikeco
- Ausartzen
- Bitoriano Gandiaga Fundazioa
- Bizkaiko Abokatutzaren Elkargoa
- Bizkaiko Gurutze Gorria
- Bizkaiko Tutoretza Erakundea
- CAIS Andaluziako Gizarte Sustapenerako Partzuergoa
- CEAR Euskadi
- Claretenea
- Coobizi
- Delikatetxe
- Eclosión-coaching y desarrollo
- Ellacuria Fundazioa
- Eurobasque
- Europako Mugimenduaren Euskal Kontseilua
- Fidias Fundazioa
- Gernika Gogoratuz
- Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Elkarteen Foroa
- Goiztiri
- Harribide Fundazioa
- Haszten
- Ikuspegi
- Irse Araba
- Lagun Artean
- Munduko Medikuak
- SIIS Dokumentazio eta ikerketa zentroa
- Sortarazi

- BAM Irakasleen Unibertsitate Eskola
- Camarabilbao University Business School
- Deustuko Unibertsitatea
- Mondragon Unibertsitatea
- UNED Bizkaia
- UPV/EHU Euskal Herriko Unibertsitatea

GOBERNU-ORGANOA

Luz Casanova Fundazioa - Jesusen Bihotzaren Apostolikoen Gizarte Ekintza

Josefa Moleón Caro,
presidentea
Mª Elena Ayarza Elorriaga,
presidenteordea
Mª José Torres Pérez,
batzordekidea
Mª Begoña Marañón Unanue,
batzordekidea
María Manrique Zorrilla,
batzordekidea
Ignacio Moya del Rio,
batzordekide ez-patronoa
Víctor Juan González Prieto,
idazkari ez-patronoa

Luz Casanova Fundazioa

Babes gabeko eta bazterketako egoeran dauden pertsonen garapen pertsonalaren eta gizarteratzearen alde lan egiten dute, etxerik gabeko pertsonekin, eta genero-indarkeriaren biktima diren emakume eta adinez txikikoekin, hain zuzen.

www.proyectosluzcasanova.org

FUNDACION luz casanova

Luz Casanova Fundazioa

Luz Casanova Fundazioa 2007. urtean Jesusen Bihotzaren Apostolikoek sustatutako diru-irabazi asmorik gabeko erakunde bat da. Apostolikoen Gizarte Ekintza lana pixkanaka zabaldu eta biltzeko xedez sortu zuten.

Urtetako lankidetza estuaren eta biziaren ondoren, 2017an EDEn txertatu da, are gehiago sendotzeko eta garatzeko. Inklusioa eta berdintasuna ditu bere lanaren ardatz.

Espazio berria herritar zaurgarrienekin lan egiteko.

2020an Apostolikoek Madril iparraldean herritar zaurgarrienei arreta eskaintzeko utzitako eraikin baten proiektuaren diseinua landu genuen. Luz Casanova Fundazioak kudeatuko du espazio hori proiektu sozial berritzaileak eta eraldatzaileak hartzeko. 3.200 metro koadro egongo dira bertan erabilgarri etxebizitzari lotutako irtenbideak, eta komunitatearen garapena, berdintasuna, inklusioa eta indarkeria matxistaren aurkako borroka lantzeko.

75
pertsona langile:
68 emakume / 7 gizon

100
boluntario:
80 emakume / 20 gizon

1.613
pertsona artatuak, bazterketa-larriko eta indarkeriazko egoeran zeudenak

39
erakundek jaso dute berdintasunari buruzko prestakuntza

Zaintzak, funtsezkoak larrialdiaren aurrean

Alarma-egoerak etxean, atera ezinik, egotera behartu gintuen. Hala ere, Gizarte Ekintzatik nahiz Fundaziotik, ahalegina handitu genuen gure funtsezko zerbitzuak eskaintzen jarraitu ahal izateko. Plantillak indartu egin genituen, ordutegiak bikoiztu, eta gure lan egiteko modua erabiltzaileen beharretara egokitu genuen, eta hala, erabiltzaileentzat, gure lanak ez zuen etenik izan. Gazteei, adibidez, arreta modu birtualean eskaini genien, eta adinekoekin, digitalizazioari garrantzia eman genion.

"Nire bizimodua goitik behera aldatu zen. Familia bat aurkitu nuen hemen, eta eskubideak ditudala ikasi nuen.

Glore Dias García,
No Second Night
proiektuko parte-hartzailea

No Second Night, programa aitzindaria Espainian

COVID-19ak sorrarazitako larrialdi-egoeraren aurrean, eta ekonomia- eta osasun-krisiagatik etxerik gabeko emakumeen kopurua igo egin zenez, Madrilgo Udalarekin No Second Night proiektua kudeatu genuen larrialdiko kontratu baten bidez. Proiektu aitzindaria izan zen Espainian eta Luz Casanova Fundaziotik kudeatu genuen. Bi gako ditu programak: emakumeak etxerik gabe egotea prebenitzea eta genero-ikuspegia.

52 emakume artatuta, **% 38** izan ziren, bost hilabetean, bizimodu autonomoari ekitea lortu zutenak, eta **% 54** dirusarrerak lortzen hasi dira.

Luz Casanova Fundazioa

Datu ekonomikoak

Diru-sarrerak

Diru-sarrerak guztira 407.383,46 €

Diru-sarreren xehetasunak

Zerbitzuak	39.629,80 €	9,73%
Dirulaguntzak eta donazioak	367.753,66 €	90,27%

Finantzaketa

Publikoa	290.483,98 €	71,30%
Pribatua	116.899,48 €	28,70%

Finantzaketaren xehetasunak

Emandako zerbitzuak	313.290,49 €	76,90%
Dirulaguntza pribatuak	26.067,05 €	6,40%
Dohaintzak eta legatuak	67.059,01 €	16,46%
Bestelakoak	966,91 €	0,24%



Gastos

Gastuak guztira 339.926,68 €

Gastuen xehetasunak

Langileak	142.930,11 €	42,05%
Ustiaketa gastuak	122.600,16 €	36,07%
Gastuak laguntzengatik	41.442,82 €	12,19%
Hornikuntzak	23.721,97 €	6,98%
Amortizazioak	9.231,62 €	2,72%



Helmuga

Larrialdian dauden emakumeak	217.553,08 €	64,00%
Etxerik gabeko pertsonak	17.000,00 €	5,00%
Indarkeriaren biktima diren emakumeak	23.788,20 €	7,00%
Hirugarren Sektorea, parte-hartzea	81.585,40 €	24,00%



Kontabilitateko emaitza, 2020

Gastuak guztira	339.926,68 €
Diru-sarrerak guztira	407.383,46 €
Emaitza kontablea	**67.456,78 €**

Gizarte ekintza Jesusen Bihotzaren Apostolikoak

Datu ekonomikoak

Diru-sarrerak

Diru-sarrerak guztira 2.227.968,75 €

Diru-sarreren xehetasunak

Erabiltzaileen kuotak	4.522,00 €	0,20%
Hitzarmenak	1.211.815,74 €	54,39%
Dirulaguntzak eta donazioak	1.006.673,45 €	45,18%
Kudeaketako bestelako sarrerak	4.957,56 €	0,22%



Finantzaketa

Publikoa	1.976.684,16 €	88,72%
Pribatua	251.284,59 €	11,28%

Finantzaketaren xehetasunak

Madrilgo Erkidegoa	689.760,16 €	30,96%
Udalak	1.261.072,00 €	56,60%
Estatukoa eta europakoa	25.852,00 €	1,16%
Bestelakoak	251.284,59 €	11,28%



Gastos

Gastuak guztira 2.125.756 €

Gastuen xehetasunak

Langileak	1.663.586	78,26%
Ustiaketa gastuak	331.116	15,58%
Bestelakoak	119.922	5,64%
Amortizazioak	11.133	0,52%



Helmuga

Inklusioa	786.955	37,02%
Berdintasuna: Larrialdia	990.177	46,58%
Berdintasuna: Batasuna	348.624	16,40%



Kontabilitateko emaitza, 2020

Gastuak guztira	2.125.756 €
Diru-sarrerak guztira	2.227.969 €
Emaitza kontablea	**102.213 €**

Pandemia: testuingurua, ez esentzia

Eskerrik asko EDEren 2020ko Memoria honetara hurbiltzeagatik, bertan aktore izan zaretela edo egindako lanagatik interesatuta zaudetela esan nahi duelako.

Bizi izandako urtea, nolabait 2021ean luzatzen ari dena, zaila izan da guztiontzat, distopikoa diote pentsalari batzuek (ez genuen pentsatuko horrelakorik gertatuko zenik).

Nahasmenduak, zailtasunak eta baita minak ere ez gintuzke *atzerako ispilu moduan* jarri behar (*aurreko normaltasunera* lehenbailehen itzuli), ezta *turbo moduan* ere (aurrera egin, bizi izandakoa ahaztu...).

Barnetik ikasteko aukera eman beharko liguke, gure bizi-erritmoaren moteltzea baloratu beharko genuke zentzu gehiago emateko, hurbileko aurpegiei begiratu eta topaketa eta errukia landu, naturari begiratu, naturan eta naturarekin sentitu, eta kentzen diogun hori (eta gure buruari kentzen dioguna ere) itzuli.

POSIBLEA DA, dagoeneko posible izan delako: pertsona eta kolektibo askok denbora honetan erreakzionatzen jakin dutelako, herritartasuna, begirada ekologikoa eta komunitate zibila esperimentatu ditugulako, nabarmenagoa egin delako beste batzuen bizitzari eusteko gai den jendea dagoela, batez ere zaurgarrienak eta urratuenak.

Bizi izandakoagatik, uste dugu posible dela berdintasunean, justizian eta besarkada artean gizarteak eraikitzea... eta horretan ari gara.

Pepa Moleón
-
Luz Casanova
Fundazioko lehendakaria
EDE Fundazioaren Patronatuko
Zuzendaritza Batzordeko kidea



Diseinua: La Machine Gráfica
Ilustrazioak: Bea Aparicio

EDE
FUNDAZIOA